
UDA
LEKUAK
2014
udalekuak
2014

udalekuak 2014

# Aurkibidea
# Índice

Txandak
Turnos ........ 4

Informazioa eta Arau Orokorrak
Información y Normas Generales ........ 6

Izen ematea eta izen emateko lekuak
Inscripción y lugares de inscripción ........ 8



## AURKEZPENA

**Udalekuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean antolatzen den udaleku programa bat da; hiru lurraldeetako 7 eta 13 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta jarduera ludiko hezigarrietan parte hartu ahal izango dute.**

Parte-hartzaileak bizi diren lurralde historikoari dagokion foru aldundian inskribatu beharko dira.

Bertan parte hartzen duten umeei jolaserako, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi zaie, beren gozamenerako eta autonomia pertsonala finkatzeko.

**Bi hizkuntza-ereduen artean aukera egin daiteke:**

**Euskara:** Parte hartzaileek beren taldekide zein monitoreekin euskaraz jarduteko gai izan behar dute. Guraso edo tutoreek erabakita euskara izango da parte hartzaileek nahitaez erabili beharko duten hizkuntza.

**Elebiduna:** umeek euskara nahiz gaztelania erabili ahal izango dute.

**Hizkuntza eredua aukeratzerakoan umearen errealitatearekin bat datorrena hartzea gomendatzen dugu**, gaizki egindako hautaketak, aisiarako eta gozamenerako izan behar duten egunak esperientzia txar bihurtzea eragin dezakeelako.

**Plaza guztien %5a desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbaturik dago.**

# UAK 2014



## PRESENTACIÓN

**Udalekuak es un programa de colonias de verano organizadas entre las Diputaciones de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, para niños y niñas de los tres territorios con edades comprendidas entre 7 y 13 años, que podrán participar en actividades de carácter lúdico-educativo.**

Cada persona participante, deberá inscribirse en la Diputación Foral correspondiente a su Territorio Histórico de residencia.

Se pretende proporcionar a las personas participantes un espacio para el juego, la diversión y la convivencia donde poder disfrutar y afianzar su autonomía personal.

**Permite la elección de dos modalidades lingüísticas:**

**Euskara**: donde las personas participantes deberán ser capaces de relacionarse en euskara tanto con sus compañeros/as como con sus monitores/as. Este será el vehículo obligatorio de comunicación elegido por los padres, madres, personas tutoras.

**Bilingüe**: las personas participantes podrán comunicarse indistintamente en euskara y castellano.

**Recomendamos seleccionar el modelo lingüístico de la forma más ajustada a la realidad del niño y la niña**, ya que una mala elección puede convertir unos días de ocio y diversión en una experiencia negativa.

**El 5% de las plazas está reservado para personas con discapacidad.**

## Instalazioak
## Instalaciones
## 2014



### ARABA


Barria ........ 10
Valderejo ........ 11
Zuhatza ........ 12


### BIZKAIA


Bizkaia-Athletic ........ 13
Gorliz ........ 14
La Arboleda ........ 15
Lapurreketa ........ 16
Lauaxeta ........ 17
Lurraska ........ 18
Urduña ........ 19


### GIPUZKOA


Hondarribia ........ 20
Orio ........ 21
Segura ........ 22
Zarautz ........ 23




# Txandak
# Turnos

## 7 eguneko txandak
## Turnos de 7 días




## 7-8 URTE/AÑOS

NACIDOS EN:
**2006-2007**an
JAIOTAKOAK

| **7 EGUNEKO TXANDAK** TURNOS DE 7 DÍAS | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Uztaila - Julio | | | | Abuztua - Agosto | |
| Lekua - Lugar | 1-7 | 8-14 | 16-22 | 23-29 | 1-7 | 8-14 |
| Barria | Euskara | Euskara | Euskara | Euskara | - | - |
| Gorliz | Elebiduna/Bilingüe | Euskara | Euskara | Euskara | Euskara | - |
| Segura | - | Euskara | - | - | - | Elebiduna/Bilingüe |

## 9-11 URTE/AÑOS

NACIDOS EN:
**2003-2004-2005**ean
JAIOTAKOAK

| **7 EGUNEKO TXANDAK** TURNOS DE 7 DÍAS | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Uztaila - Julio | | | | Abuztua - Agosto | |
| Lekua - Lugar | 1-7 | 8-14 | 16-22 | 23-29 | 1-7 | 8-14 |
| Barria | Euskara | Euskara | Euskara | Euskara | - | - |
| Barria | Bertsolaritza | - | - | - | - | - |
| Urduña | Euskara | Euskara | - | - | - | - |
| Gorliz | - | - | - | - | - | Euskara |
| La Arboleda | Elebiduna/Bilingüe | Elebiduna/Bilingüe | - | - | Elebiduna/Bilingüe | - |
| Hondarribia | Euskara | Euskara | Euskara | Euskara | - | - |
| Segura | Euskara | - | Elebiduna/Bilingüe | Elebiduna/Bilingüe | Euskara | - |
| Zarautz | Euskara | Euskara | Euskara | - | - | - |

udalekuak Bizkaia

172'00€

10 eguneko txandak
Turnos de 10 días

Txandak
Turnos

## 9-11 URTE/AÑOS

NACIDOS EN: **2003-2004-2005**ean JAIOTAKOAK

**10 EGUNEKO TXANDAK** TURNOS DE 10 DÍAS

| | Uztaila - Julio | | |
|---|---|---|---|
| Lekua - Lugar | 1-10 | 11-20 | 21-30 |
| Lauaxeta | Euskara | Euskara | Euskara |
| Lurraska | - | - | Euskara |
| Lapurreketa | - | Euskara | Elebiduna/Bilingüe |
| Zuhatza | Euskara | Elebiduna/Bilingüe | Euskara |

## 12-13 URTE/AÑOS

NACIDOS EN: **2001-2002**an JAIOTAKOAK

**10 EGUNEKO TXANDAK** TURNOS DE 10 DÍAS

| | Uztaila - Julio | | |
|---|---|---|---|
| Lekua - Lugar | 1-10 | 11-20 | 21-30 |
| Bizkaia-Athletic | - | - | Euskara |
| Lurraska | - | Euskara | - |
| Lapurreketa | Euskara | - | - |
| Orio | Elebiduna / Bilingüe | Euskara | Euskara |
| Zuhatza | Euskara | Elebiduna / Bilingüe | Euskara |

## 12-13 URTE/AÑOS

NACIDOS EN: **2001-2002**an JAIOTAKOAK

**7 EGUNEKO TXANDAK** TURNOS DE 7 DÍAS

| | Uztaila - Julio | | | | Abuztua - Agosto | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lekua - Lugar | 1-7 | 8-14 | 16-22 | 23-29 | 1-7 | 8-14 |
| Urduña | - | - | Euskara | Euskara | - | - |
| La Arboleda | - | - | Euskara | Euskara | - | Elebiduna/Bilingüe |
| Hondarribia | Euskara | Euskara | - | - | - | - |
| Valderejo | Euskara | Euskara | Elebiduna /Bilingüe | - | - | - |
| Zarautz | - | - | - | Euskara | - | - |

# INFORMAZIOA ETA ARAU OROKORRAK

1 Udalekuak elkarrekin bizitzeko eta baloreak ikasteko tokiak dira, beraz elkarbizitza eta lankidetzako arau batzuk dituzte. Parte hartzaileren batek arau horiek behin eta berriz beteko ez balitu, etxera bidali ahal izango litzateke. Etxerako itzulia guraso edo tutoreen kargura izango litzateke.

2 Parte hartzaileek izen ematean osatzen dituzten taldeak errespetatzen ahaleginduko gara beti. 7-11 urteko umeak sexu bereizketarik egin gabe banatuko dira logeletan. Aldiz, 12 eta 13 urteko umeak sexuaren arabera bereizita banatuko dira logeletan, baldin eta instalazioak horretarako aukera ematen badu.

3 Udalekuaren dinamika ez eteteko ez da bisitarik onartuko. Nolanahi ere, beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira umeak, horrela nahi badute, beraien guraso edo tutoreekin komunikatu ahal izateko, bai gutun edo telefono bitartez, instalazio bakoitzak dituen baliabideen arabera.

4 Antolatzaileen ustez, komenigarria da neska-mutilek sakelako telefonorik, musika-erreproduzigailurik (mp3, mp4,...), argazki-kamerarik edo beste edozein aparailu elektroniko ez eramatea, egonaldian sor daitezkeen eragozpenak saihesteko. Hala ere, guraso edo tutoreek, antolatzaileen gomendioari muzin eginez, seme-alabek halako gailuak eramango dituztela erabakitzen badute, aditzera eman nahi dizuegu telefono horien erabilera mugatua izango dela.

5 Haurrek arropa guztia bere izen-deiturekin edo horien inizialekin markatuta eraman beharko dute. Kuotak gastu guztiak barne hartzen dituenez, erakundeak, guraso edo tutoreei  irizpide ona izan dezatela eskatuz, aholkatzen du parte hartuko dutenek dirurik ez eramatea.

6 Plaza eskuratu eta kuota ordaindu ondoren ez da aipatutako zenbatekoa itzuliko, baldin eta ondo frogatutako arrazoirik badago eta Gazteri zerbitzuak ezarriko duen irizpidearen arabera, beti ere, gorabehera hori behar besteko aurrerapenez jakinarazten bada. Eskolan emaitza txarrak lortzea ez da dirua itzultzeko arrazoitzat hartuko.

7 Udalekuaren garapenerako beharrez-koak ez diren gauzak edo baliozkoak ez eramatea gomendatzen dugu, antolatzaileek ez baitute inolako erantzukizunik izango,  gauzak horiek galdu, apurtu edo hondatuz gero.

8 Gazteri zerbitzuak programa honetako alderdi batzuk aldatzeko ahalmena du, horien ordez antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk jarriz.

# INFORMACIÓN Y NORMAS GENERALES

1 Las colonias son espacios de convivencia y aprendizaje de valores, motivo por el que han de estar sujetas a unas normas de convivencia y colaboración. Si alguna de las personas participantes reiteradamente incumpliera las mismas, podría ser devuelta a casa. El traslado correría a cargo de los progenitores o tutores/as.

2 En todo momento se intentará respetar los grupos de inscripción de los y las participantes. Los niños y las niñas de 7 a 11 años se distribuirán en los dormitorios independientemente del sexo. Por el contrario, los niños y las niñas de 12 y 13 años, siempre que la instalación lo permita, serán distribuidos en dormitorios separados en función del sexo.

3 Con el fin de no romper la dinámica de la colonia, no se admitirán visitas; en cualquier caso se habilitarán los medios necesarios para que los niños y las niñas, si lo desean, se puedan comunicar con sus padres, madres o tutores/as, bien por carta o por teléfono, en función de las posibilidades de cada instalación.

4 La organización recomienda que los niños y las niñas no lleven teléfono móvil, reproductores de música (mp3, mp4), cámaras de fotos, o cualquier otro aparato electrónico por las molestias que pudiera ocasionar en el desarrollo de la actividad. En aquellos casos en que los progenitores o tutores/as, haciendo caso omiso a la recomendación de la organización, opten por que sus hijos o hijas acudan con este tipo de dispositivos, les informamos que su uso quedará restringido.

5 Los niños/as deberán llevar toda la ropa marcada con su nombre y apellidos o bien las iniciales de los mismos. Asimismo, todos los gastos están incluidos en la cuota, por tanto la organización, apelando al buen criterio de los progenitores o tutores/as, recomienda que los y las participantes no lleven dinero a la actividad.

6 Una vez obtenida la plaza y abonada la cuota, ésta no será devuelta salvo por causa justificada, según criterio marcado por el Servicio de Juventud, y siempre que se haya comunicado la incidencia con la suficiente antelación. Las malas notas no son motivo de devolución.

7 Recomendamos no llevar objetos de valor o innecesarios para el desarrollo de la colonia, ya que la organización no se responsabilizará de su pérdida, rotura o deterioro.

8 Este Servicio de Juventud, se reserva la capacidad de poder modificar algunos aspectos de este programa, sustituyéndolos por otros de características similares.

# IZEN-EMATEA 2014

## AURRETIKO IZEN EMATEA

**Martxoaren 10etik 21era.**

Aurreinskripzioak egiteko eta argibide gehiago lortzeko, deitu edo jo ezazu Rekalde Aretoa (Bilboko Rekalde Zumarkale, 30 beheko solairua.), Aldundiko foru sailen erregistroetara, Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko bulegora ere (Bilboko Diputazio kalea, 7. zk., beheko solairua - Foru Liburutegiko beirazko eraikina, Aldundiko Jauregiaren atzealdea), Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta eskualdeko bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan xedatu den moduan, edo **www.gaztebizz.com/udalekuak** webgunera: argibide gehiago (tel. 902 540 299 -946 083 360)

## PLAZAK IZENDATZEA

**Apirilaren 15ean** notario aurrean egindako zozketa publikoz. Esleitutako plazen erreserba baieztatzeko epea ordaintzeko azken egunean amaituko da, maiatzaren 6an, alegia.

## OHARRAK

Plaza tokatuz gero, kuotaren hobaria izango dute honako hauek betetzen dituzten eska-tzaileek: **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familietakoak zein Familia ugarikoak izatea**.

Zozketa egin eta gero, izena emandako lekuetan eta INTERNETen agertuko dira plazen zerrendak.

## IZENA EMATEKO LEKUAK
## LUGARES DE INSCRIPCIÓN

**Aurreinskripzioak egiteko eta argibide gehiago lortzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta eskualdeko bulegoetan.**

**Para hacer las preinscripciones y obtener mas información se puede llamar o dirigirse a las dependencias municipales o comarcales del Territorio Histórico de Bizkaia siguientes:**

**ABANTO ZIERBENA**
Pza. Bizkaia, trasera s/n
94 636 37 69

**AMOREBIETA-ETXANO**
Zelaieta Parkea, s/n
94 630 06 49
94 630 06 50

**ARRIGORRIAGA**
Gaztegune
Ugertza bidea, 1
94 600 18 76

**ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA**
Igorre
Calle Elexalde, 49
946 311 717

**BALMASEDA**
Pío Bermejillo, nº 40
94 680 02 40

**BARAKALDO**
San Juan, 17
94 478 95 96
94 478 95 99

**BASAURI**
C.C. Basozelai
Basozelai, 9
94 466 64 30

**BERMEO**
Gizarte-Kultura Etxea
Irakaskintza, 14-16
94 617 91 58

**DURANGO**
Pinondo Plaza, 1
94 603 00 30

**ERANDIO**
Irailaren 23a Plaza
94 602 58 91

**ERMUA**
Lobiano Kultur Gunea
Goienkale, 10
943 70 87 00

**GERNIKA-LUMO**
Foru Plaza, 2
94 627 02 15

**GETXO**
Tangora Etxea
Algortako Etorbidea, 98
94 466 03 53

**LEA-ARTIBAI AMAKOMUNAZGOA**
Patrokua jauregia
Xemein etorbidea, 13
Markina-Xemein)
946311717

# INSCRIPCIÓN

udalekuak Bizkaia

**LEIOA**
Aldapabarrena, 2
94 405 58 50

**MUNGIA**
Arana Goiritar Sabin, 13
94 655 33 53

**MUSKIZ**
Muskizko Gaztegune
Meatzari Plaza, 2
94 670 80 37

**PORTUGALETE**
C.C. Santa Clara
Martín Fernández
Villarán, s/n
94 472 93 13

**SANTURTZI**
Parque Santurtzi, s/n
94 483 61 10

**SESTAO**
La Iberia, s/n
94 495 61 27
94 495 06 01

**SOPELANA**
Kurtzio Kultur Etxea
Mendieta kalea, 11
94 406 55 05

**TXORIERRI**
Txorierri etorbidea, 9
behea (DERIO)
688 62 99 65

**ZALLA**
Gazte Zentro
Madres Irlandesas, 4
94 639 13 96

**REKALDE ARETOA**
**Rekalde Zumarkalea, 30 beheko Solairuan**

**ERREGISTRO ETA HERRITARRENGANAKO LAGUNTZA BIDERATZEKO ATALA**
Bilboko Diputazio kalea 7. zk,
beheko solairua.
(Foru Liburutegiko Beirazko eraikina, Aldundiko Jauregiaren atzealdea)

**SECCIÓN DEL REGISTRO Y ATENCIÓN CIUDADANA**
Diputación, 7 Bilbao
planta baja
(Edificio de cristal de la biblioteca foral, trasera del Palacio de la Diputación)

**Tel. 902 540 299 - Tel. 946 083 360**
**www.gaztebizz.com/udalekuak**

## PLAZO DE INSCRIPCIÓN

**Del 10 al 21 de marzo.**

Para hacer las preinscripciones y obtener más información puede llamar o dirigirse a la Sala Rekalde (alameda Rekalde, 30 bajo.), a cualquiera de los Registros de los diferentes Departamentos Forales de esta Diputación, a la oficina del Registro y Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia (c/ Diputación nº7 - bajo de Bilbao - Edificio de cristal de la Biblioteca Foral, trasera del Palacio de la Diputación), a las dependencias municipales o comarcales del Territorio Histórico de Bizkaia, en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o a través de la web **www. gaztebizz.com/udalekuak**
más información: (Tel. 902 540 299-946 083 360)

## ADJUDICACIÓN DE PLAZAS

El día **15 de abril** mediante sorteo público ante notario. El último día de pago, para formalizar la reserva de las plazas adjudicadas, será el día 6 de mayo.

## NOTAS

Una vez adjudicada plaza en el sorteo, tendrán bonificación de cuota los/as solicitantes que cumplan las siguientes condiciones: **ser perceptores/as de la Renta de Garantía de Ingresos o pertenecer a Familia numerosa**.

Los listados de adjudicación de plazas se expondrán en los lugares de inscripción y en INTERNET.

# BARRIA

170

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Barriako Aterpetxea
01208 Barria-Narvaja

ARABA

Urkilla mendilerroaren oinean, Gasteiztik 25 km-ra. Monasterio zaharra, aterpetxe bihurtua, jarduera eremu handiarekin.

Al pie de la sierra de Urkilla, a 25 km. de Vitoria-Gasteiz. Antiguo monasterio rehabilitado para albergue con amplia zona de actividades.



**Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
Adaptado para personas con movilidad reducida.



4, 6 eta 8 lagunentzako logelak, bainugelarekin, eta 20 lagunentzako 4 logela, bainugela partekatuarekin. 5 jarduera areto, TB eta bideoarekin. Igerilekua eta kirol jokalekuak. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

Habitaciones de 4, 6 y 8 plazas con baño incorporado y 4 habitaciones de 20 plazas con baños compartidos. Cinco salas de actividad con TV y vídeo. Piscina, canchas deportivas, zonas de juegos. Comidas elaboradas en la propia instalación.

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Kirol-jarduerak eta kultur jarduerak naturarekin harremanetan
- Gaubelak eta gau jolasak
- Txangoak
- Igerilekua
- Senderismoa
- Ortuko jarduerak

- Actividades de tiempo libre
- Actividades deportivo-culturales en contacto con la naturaleza
- Veladas y juegos nocturnos
- Excursiones
- Piscina
- Senderismo
- Actividades hortícolas



Arabako haran mendebaldekoenean dago, Gaubean. Parke naturala 1992tik eta 3.496 hektareako hedadura du. Puron ibaiak berebiziko garrantzia du, baita haren haitzarteak eta urjauziek ere. Balio handiko fauna bizi da bertako baso, larre, harkaitz eta ibaietan: sai arrea, sai zuria, arrano beltza, basakatua, orkatza, basurdea...

En el valle más occidental de Álava, en Valdegovía. Parque Natural desde 1992, con una extensión de 3.496 hectáreas. El río Purón es de vital importancia, con el desfiladero y sus cascadas. Una valiosa fauna vive en sus bosques, prados, roquedos y ríos: el buitre leonado, alimoche, águila real, gato montés, corzo, jabalí...

# VALDEREJO

Valderejoko Parke Naturala
Parketxea / Casa del Parque
Lalastra 01427

ARABA

24

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

EZ DAGO egokitua mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
NO ESTÁ adaptado para personas con movilidad reducida.



Ostatua, olanazko bi tunel modulu; bakoitzak elkarren gaineko sei ohetarako tokia du. Jangela, komunak eta jardueretarako aretoak, denak parkearenak. Ur beroz hornitutako dutxen modulua.

Alojamiento, 2 módulos túnel de lona, con capacidad para 6 literas cada uno. Zona de comedor, servicios y salas de actividad, propias del parque. Módulo de duchas con agua caliente.





## JARDUERAK / ACTIVIDADES

Hegazti harraparien behaketa eta errolda. Faunako espezieen jarraipena, habia-kaxen bidez. Hegaztien eraztunketa. Mikologiaren hastapenak. Basoaren, ibaiertzen eta beste ekosistema batzuen ezagutza. Izarren behaketa. Aisialdiko mendi ibilaldiak.

Observación y censo de aves rapaces. Seguimiento de especies de fauna con cajas nido. Anillamiento de aves. Iniciación a la micología. Conocimiento del bosque, riberas y otros ecosistemas. Observación de las estrellas. Actividades de tiempo libre. Senderismo.

# ZUHATZA

**400**

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Zuhatza Uharteko Aterpetxea
Posta kutxa 2030
01080 Vitoria-Gasteiz (Araba)

## ARABA

**EZ DAGO egokitua mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
**NO ESTÁ adaptado para personas con movilidad reducida.**

Ullibarri-Ganboako urtegian, 500.000 m2-ko uharte batean, Gasteiztik 15 km-ra.

En una isla de 500.000 m$^2$, en el embalse de Ullibarri-Ganboa, a 15 km. de Vitoria-Gasteiz.






Logelak: 40 egurrezko etxolatan, bakoitzak 6 ohe (12 leku). Sukaldea, jangela, 3 instalazio komun ur beroarekin eta polikiroldegia. Medikua egun osoan. Kanpoko jolasetarako leku handia, pista amerikarra eta bainurako eremu mugarriztatua. Uharteko irteerak eta sarrerak bidaiariak eramateko prestatuta dauden gabarretan egingo dira. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

40 cabañas de madera, con 6 literas (12 plazas) cada una. Cocina, comedor, 3 baterías de servicios con agua caliente y polideportivo. Médico permanente. Amplias zonas para juegos al aire libre, pista americana y zona de baño acotada. Incorporación y salida en barcaza dispuesta para pasajeros. Comidas elaboradas en la propia instalación.

### JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Arraunketa
- Piragua
- Pedaloiak
- Optimist eta wind surfa
- Kiroldegiko eta kanpoko jarduerak
- Astialdiko jarduerak ere

- Naúticas de remo
- Piragua
- Pedalón
- Óptimist y wind surf
- Actividades deportivas en polideportivo y al aire libre
- Actividades de tiempo libre





# BIZKAIA Athletic

Leioan, Askartza Claret (Atalaia) egoitza, kirol instalazio askotarako sarbide zuzenarekin.

En Leioa, residencia Askartza Claret (Atalaia) con acceso directo a gran cantidad de instalaciones deportivas.

Askartza Claret
Sarriena auzoa, 173
48940 Leioa (Bizkaia)

BIZKAIA

100

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
Adaptado para personas con movilidad reducida.



Bizi itzazu kirolez, abenturaz eta kulturaz betetako egunak Bizkaia-Athletic udalekuan. Leioan dagoen Askartza Claret (ATALAIA) egoitza modernoan, Bizkaia-Athletic udalekuak kirol anitzeko jarduera egiteko aukera ematen du, eta, horrekin batera, munduan parekorik ez duen futbol talde bat (Athletic Club) eta talde horren balioak, historia eta gizartean duen garrantzia zuzenean ezagutzeko aukera ere. Lezaman entrenatuko zara, teknikari profesionalekin; San Mames ezagutuko duzu zuzenean, eta Athletic Club erakundeko talde nagusietako jokalariekin hitz egin ahal izango duzu.
Gainera, beste jarduera batzuetaz gozatzeko aukera ere izango duzu: igerilekua; irteerak, kultur bisitak, hainbat tailer eta talde jarduerak, eta Athletic Club taldearen izpiritua bete-betean.
Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

Disfruta de unos días de deporte, aventura y cultura, en el Udaleku Bizkaia-Athletic. En la moderna residencia Askartza Claret (ATALAIA) en el municipio de Leioa, el Udaleku Bizkaia-Athletic combina el multideporte con el conocimiento de primera mano de un club de fútbol único en el mundo como el Athletic Club, sus valores, su historia y su dimensión social.
Entrenarás en Lezama con técnicos profesionales, conocerás San Mamés de primera mano y charlarás con los jugadores y las jugadoras de las primeras plantillas del Athletic Club.
Pero además, podrás disfrutar de piscina propia, excursiones, visitas culturales, diferentes talleres y actividades grupales y todo el espíritu Athletic Club.
Comidas elaboradas en la propia instalación.



## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Entrenenduak Lezaman
- Bisitak San Mamesera •
  Txangoak
- Igerilekua
- Kirol anitza

- Entrenamientos en Lezama
- Visita a San Mamés
- Excursiones
- Piscina
- Multideporte

# GORLIZ

**50**

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Gorlizko Aterpetxea
Itsasbide, 58
48630 Gorliz (Bizkaia)

BIZKAIA

Gorlizko hondartzaren ondoan dago, Bilbotik 27 km-ra.

Se encuentra situado junto a la playa de Gorliz, a 27 km de Bilbao.



EZ DAGO egokitua mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
NO ESTÁ adaptado para personas con movilidad reducida.



9 logela, 4, 5, 6, 7 eta 8 lagunentzat. Bi jarduera areto, telebista, bideo eta DVDrekin. Kanpoaldean rokodromoa, tirolina,... Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

9 habitaciones para 4, 5, 6, 7 y 8 personas. Dos salas de actividades, con TV, vídeo y DVD. En la zona exterior, rocódromo, tirolina,... Comidas elaboradas en la propia instalación.

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Ureko eta lurreko abenturazko ekintzak
- Gaubelak
- Txangoak

- Actividades de tiempo libre
- Actividades multiaventura acuáticas y terrestres
- Veladas
- Excursiones





Trapagarango Zugaztieta auzoan dago, Bilbotik 20 km-ra. garai batean Europako meatze-ustiapen garrantzitsuenetako bat izan zen inguru hau eta gaur egun, naturak sortutako lakuen edertasunagatik ezaguna egin den espazio natural bat da.



En el barrio de La Arboleda en Trapagaran, a 20 km. de Bilbao, en un importante espacio natural, por la belleza de los lagos que la naturaleza ha creado y en lo que fue una de las explotaciones mineras más importantes de Europa.

3 logela, 8 lagunentzako bakoitza, 10 lagunentzako logela bat, 4 logela, 6 lagunentzako bakoitza. Bi jarduera-areto, telebista eta bideoarekin. Jolastoki estalia eta kirol esparruak. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.



3 habitaciones de 8 personas, 1 de 10 personas, 4 de 6 personas. Dos salas para actividades, televisión y vídeo. Patio cubierto y campos deportivos. Comidas elaboradas en la propia instalación.



# LA ARBOLEDA

La Arboleda Aterpetxea
Gabriel Aresti, 2
48510 Trapagaran (Bizkaia)

BIZKAIA

50
PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

**Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
Adaptado para personas con movilidad reducida.




## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko Jarduerak
- Txangoak
- Senderismoa
- Zientifiko-teknologikoen lantegiak eta gaubelak

- Actividades de tiempo libre
- Excursiones
- Senderismo
- Talleres y veladas científico-tecnológicas

# LAPURREKETA

**40**

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Lapurreleta Baserri-eskola.
Dima-Otxandioko errepidea, 38.
km - 48141 Dima

BIZKAIA

**EZ DAGO egokitua mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
**NO ESTÁ adaptado para personas con movilidad reducida.**



**Bi parke natural artean, Urkiolako eta Gorbeiako parkeen artean, kokatuta dagoenez, Lapurreketak ziurtatzen du inguru naturalarekin bat egiten dela.**

Enclavada a medio camino entre dos parques naturales: el de Urkiola y el de Gorbea. Lapurreketa garantiza el contacto con el medio natural.



Gela handitan dago banatuta instalazioa; guztira hirurogeita hamar plaza daude. Horrez gain, jarduerak egiteko bi gela daude eta telebista eta bideoa dituen beste bat. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

La instalación está dividida en habitaciones grandes, que acogen a setenta plazas. Además posee dos salas de actividades y una con televisión y vídeo. Comidas elaboradas en la propia instalación.

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

Lapurreketa baserri-eskolan nabarmentzekoena da inguru naturala eta energiaren arazoa ezagutzeko aukera ematen duena. Izan ere, honakoak topa daitezke bertan: Ortuko jarduerak, animaliekin eginiko jarduerak, lehengaiekin eginikoak, ibilbide ekologikoak, eta abar. Aisialdiko jarduerak Gaubelak Txangoak.

Lo más destacable que tiene la Granja-Escuela de Lapurreketa es su objetivo del conocimiento del entorno natural, y conocimiento de la problemática energética. Actividades hortícolas, con animales, materias primas, recorridos ecológicos, etc... Actividades de Tiempo Libre, Veladas, Excursiones.



Dudeako San Miguel auzoan (Amorebieta), Urkiolako parke naturalaren ondoan.

En el barrio de San Miguel de Dudea (Amorebieta), en los límites del parque natural de Urkiola.



10 logela, 10 lagunentzako bakoitza. Jarduera-aretoa, ludoteka, telebista eta bideoa dituen areto bat. Kiroldegi estalia, kirol-modalitate anitzak gara-tzeko. Igerileku estalia. Belar artifiziala duen futbol-zelaia. Hondarrezko hiru futbol-zelai. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

10 habitaciones de 10 personas. Sala de actividades, ludoteca, sala de tele-visión y video. Polideportivo cubierto para diferentes modalidades deporti-vas. Piscina cubierta. Campo de fútbol de hierba artificial. Tres campos de fútbol de arena. Comidas elaboradas en la propia instalación.



# LAUAXETA

Lauaxeta Ikastola
San Miguel de Dudea auzoa, z/g
48290 Amorebieta-Etxano

BIZKAIA

80
PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
Adaptado para personas con movilidad reducida.



## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Gaubelak
- Txangoak
- Senderismoa
- Kirol eta kultur jarduerak naturarekin harremanetan.

- Actividades de tiempo libre
- Veladas
- Excursiones
- Senderismo
- Actividades deportivo-culturales en contacto con la naturaleza.

# LURRASKA

**120**

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Lurraska Ingurugiro Zentrua
Kanpatxu Auzoa, z/g
48320 Ajangiz

BIZKAIA

**Ajangizen dago, Gernikatik kilometro batera dagoen udalerrian, Urdaibaiko biosferaren erreserbaren erdian.**

En Ajangiz, localidad distante 1 km. de Gernika, en pleno centro de la reserva de la biosfera de Urdaibai.



**Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
Adaptado para personas con movilidad reducida.



Aterpetxearen bigarren eta hirugarren solairuetan daude logelak eta bainuak. Aretoak eta lantegiak kokatzen diren zonaz gain, etxearen atzealdean, alboko eraikin batean, egur-labe bat dago behe-solairuan, eta goiko solairuan ludoteka gisa egokituta dagoen espazio zabal bat. Ukuiluetan ardiak eta behiak daude. Zaldi eta behor-hezitegi bat. Oilategian hainbat hegazti eta animalia daude, hala nola untxiak. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

En la 2ª y 3ª planta de este albergue se encuentran ubicadas las habitaciones y baños completos. Zona de salas y talleres. En la parte de atrás, hay un anexo que acoge en su planta baja, un tradicional horno de leña y, en su planta superior, una espaciosa zona dedicada a ludoteca. Cuadras con ganado ovino y vacuno. Un picadero con caballos y yeguas. Gallinero lleno de aves de corral y otros animales como conejos. Comidas elaboradas en la propia instalación.

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Lantegiak
- Gaubelak
- Txangoak
- Abenturazko kirolak Urdaibaien
- Zaldi gaineko ibilaldiak
- Ingurumen-hezkuntzarekin erlazionatutako jarduerak

- Actividades de tiempo libre
- Talleres
- Veladas
- Excursiones
- Deporte-aventura en Urdaibai
- Paseos en caballo
- Actividades relacionadas con la educación ambiental



Txarlazo mendiaren hegalean, Urduñako hirigunetik 2 km-ra; Lendoño auzora eramaten duen errepidea hartu behar da.

En las faldas del monte Txarlazo, a 2 km. del casco urbano de la ciudad de Urduña; siguiendo la carretera que nos lleva al barrio de Lendoño.



# URDUÑA

Urduñako Aterpetxea
Carretera de Lendoño, 9
48460 Urduña

BIZKAIA

**90**
PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

10 logela, 8 lagunentzako bakoitza eta 12 lagunentzako logela bat. Hiru jarduera-areto, eta horietako bik TB eta bideoa dute. Liburutegi bat. Kiroldegia. Kanpoaldean 3 mahai-futbol daude, patinatzeko pista, belar artifizialeko futbol-zelai bat eta saski-baloira jolasteko kantxa bat. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

10 habitaciones de 8 personas y 1 de 12 personas. Tres salas de actividades, dos de ellas con TV y vídeo. Una biblioteca. Polideportivo. En la zona exterior, 3 futbolines, pista de patinaje, un campo de hierba artificial y otro para jugar al baloncesto. Comidas elaboradas en la propia instalación.

EZ DAGO egokitua mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
NO ESTÁ adaptado para personas con movilidad reducida.






**JARDUERAK / ACTIVIDADES**

- Zirko tailerrak
- Aisialdiko jarduerak
- Gaubelak
- Txangoak
- Senderismoa
- Kirol eta kultur-jarduerak naturarekin harremanetan

- Talleres de Circo
- Actividades de tiempo libre
- Veladas
- Excursiones
- Senderismo
- Actividades deportivo-culturales en contacto con la naturaleza

# HONDARRIBIA

120-70

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Juan Sebastian Elkano
Aterpetxea Higer Bidea, z/g
20280 Hondarribia

GIPUZKOA

Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
Adaptado para personas con movilidad reducida.

Kostaldea, Txingudiko badian dago sekulako ingurune berezian. Hirigunetik 800 metrora eta hondartzatik 400 metrora.

Costa, sobre la bahía de Txingudi en un entorno natural privilegiado. A 800 metros del casco urbano y a 400 metros de la playa.





4, 8, 12 eta 16 lagunentzako logelak, ohatzeetan. Bilera eta jolas gelak ditu, ikus-entzunezkoen aretoa (TB, bideoa, musika aparatua). Horrez gain, kanpoaldean jokaleku handia du jolas-kiroletako pista batekin. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

Habitaciones de 4, 8, 12 y 16 personas, en literas. Consta de diversas salas para juegos y reuniones, sala con material audiovisual (TV, vídeo, aparato de música). En el exterior cuenta con una amplia zona de recreo con pista polideportiva. Comidas elaboradas en la propia instalación.

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Gaueko jolasak
- Txangoak
- Mendi irteerak
- Hondartza
- Eta beste kirol batzuk egiteko aukera

- Actividades de tiempo libre
- Juegos nocturnos
- Excursiones
- Salidas al monte
- Playa
- Y también la posibilidad de realizar otros deportes



# ORIO

Txurruka Aterpetxea
Oribarzar hondartza
20810 Orio

GIPUZKOA

48-70

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.
Adaptado para personas con movilidad reducida.

**Kostaldea, Orioko herrigunetik 1,8 km-ra. Leku pribilegiatu batean dago, Oria itsasadarraren aurrean Oribarzar hondartzan.**

Costa, a 1,8 km. del centro de Orio. En un lugar privilegiado, frente a la ría del Oria delante de la playa Oribarzar.



12 eta 16 lagunentzako logelak, ohatzetan. Bost areto ditu eta horietako bat telebista eta bideoarekin. Jokaleku oso handia du, kanpoko igerilekua, belar artifizialeko pista, ping-pong mahaia eta eraikin estalia pilotan jokatzeko edo beste jarduera batzuk ere egiteko. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

Habitaciones de 16 y 12 personas, en literas. Cuenta con 5 salas, una de las cuales está provista con TV y vídeo. Tiene una zona de juegos muy amplia, piscina al aire libre, pista deportiva con hierba artificial, mesas de ping-pong y un edificio cubierto para utilizarlo como frontón o para otro tipo de actividades. Comidas elaboradas en la propia instalación.





## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Gaueko jolasak
- Txangoak
- Mendi irteerak, hondartza eta igerilekua
- Beste kirol batzuk egiteko aukera.

- Actividades de tiempo libre
- Juegos nocturnos
- Excursiones
- Salidas al monte, playa y piscina
- Posibilidad de realizar otros deportes

# SEGURA

**30-50**

PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Segurako Aterpetxea
Segura-Zegama errepidea
20214 Segura

GIPUZKOA



Barnealdean. Aizkorriko mendilerrotik eta Aralarreko mendilerrotik gertu, aterpetxea hirigunetik 200 metrotara dago kokatua.

Interior. Próximo a la sierra de Aizkorri y a la sierra de Aralar, se encuentra ubicado a 200 metros del centro urbano.



**Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
Adaptado para personas con movilidad reducida.



Logelak, 8, 6 eta 2 ohetakoak dira. Bi jangela ditu, bilera gela, egongela, jolasgela, 100 lagunentzako ekitaldi aretoa, ikusentzunezko gela, pilotaleku estalia, minigolf, eta haur jokoak dituen lorategi zabala. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

Habitaciones de 8, 6 y 2 camas. Dispone de dos comedores, sala de reuniones, sala de estar, salón de juegos, salón de actos para 100 personas, sala de audiovisuales, frontón cubierto, mini-golf y una amplia zona ajardinada en su exterior dotada de juegos infantiles. Comidas elaboradas en la propia instalación.

## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Gaueko jolasak
- Txangoak
- Mendi irteerak
- Igerilekua
- Beste kirol batzuk egiteko aukera

- Actividades de tiempo libre
- Juegos nocturnos
- Diversas excursiones
- Salidas al monte
- Piscina
- Otros deportes

# ZARAUTZ

Zarautz
Igerain aterpetxea
San Inazio kalea, 25
20800 Zarautz

GIPUZKOA

70
PLAZA KOPURUA
Nº DE PLAZAS

Kostaldean, Zarauzko erdigunetik eta hondartzatik 150 metrora, Pagoetako Parke Naturalaren ondoan, Zarautz-Azpeitia errepidean.

Costa, situado a 150 metros del centro de Zarautz y de la playa, al lado del Parque Natural de Pagoeta, en la carretera Zarautz-Azpeitia.



**Egokitua dago mugikortasun murriztuko pertsonentzat.**
**Adaptado para personas con movilidad reducida.**



Logelak lau oinetan bananduta daude. 2, 4, 5 eta 23 lagunentzako oheekin, denak bainugelarekin. Telebista eta bideo aretoa dauka, hitzaldietarako aretoa, 7 areto txiki eta gimnasioa. Jolasleku bat ere badu, umeentzako parkea, zuhaitzez inguratua eta erreka batek zeharkatzen duena. Otorduak aterpetxean bertan prestatuak.

Habitaciones divididas en cuatro plantas, de 2, 4, 5 y 23 camas todas con baño. Tiene una sala con TV y vídeo, con una gran sala para conferencias, 7 salas pequeñas y gimnasio. Además cuenta con una zona para juegos con parque infantil, rodeado de árboles y una pequeña regata que lo atraviesa. Comidas elaboradas en la propia instalación.



## JARDUERAK / ACTIVIDADES

- Aisialdiko jarduerak
- Gaueko jolasak
- Txangoak
- Mendi irteerak, hondartza eta igerilekua
- Eta beste kirol batzuk egiteko aukera

- Actividades de tiempo libre
- Juegos nocturnos
- Excursiones
- Salidas al monte, playa y piscina
- Y también la posibilidad de realizar otros deportes




Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Bizkaia:
www.gaztebizz.com/udalekuak